



## Bueltan da zirkoa Andoainen: Hemen da Ikuszirkus!

- **Zirkoaren diziiplina Andoainera gerturatzen duen zikloa ospatuko da irailaren 9tik 22ra.**
- **Guztira bost emankizun eskainiko dira herriko puntu ezberdinetan.**

**Andoainen, 23-09-05.-** Magia, akrobaziak, oreka... gauza askorekin lotzen dugu zirkoa, eta hain juxtu, horiei guztiei tokia egingo die Andoainek datozen asteetan. Zirkoaren diziiplina ezberdinak biltzen dituen IkusZirkus egitasmoaren edizio berri bat ospatzera goaz datorren irailaren 9an, larunbatean, hasi eta 22ra bitarte. Guztira 5 emankizun eskainiko dira, ohi moduan, Andoingo gunee eta eraikin ezberdinetan.

**Irailaren 9an,** 19:00etan, Truca Circus konpainiak **Sopla!** Ikuskizuna eskainiko du Goikoplazan. Ikuskizun ikusgarria izango da, besteak beste, diaboloa, sokak eta pilotak nahasten dituen emankizuna.

**Irailaren 15ean,** 20:00etan, Kine Circus Etiopia konpainiak, **Greed!** zirkoa eta elkartasuna lotzen dituen emankizuna eskainiko du Basteron. Oso proiektu interesgarri eta berezia da, Etiopian bertan artistak formatu eta han ikusitakoa munduan zehar erakusten ari baitira orain, eta esan bezala, Andoainen egingo dutelako geldialdia. Kultura etiopiarra, komunitatean bizitzeko modua eta indibidualismoaren ikuspegia erakutsiko digute euren ikuskizunaren bitartez. 5 euroko sarrera ordaindu beharko da.

**Irailaren 16an,** 18:00etan, Otieta parkean, Zirkozaurre-k **Harreman** ikuskizuna eskainiko du. Zirkua eta euskal musika tradizionala lotzen dituen emankizuna izango da.

**Irailaren 17an,** Circ About It konpainiak **El Apartamento** eskainiko du, 19:00etan, Goikoplazan. Deigarria izango den ikuskizuna, etxeko egongela zirku nola bihur daitekeen erakutsiko baitigu.

Eta amaitzeko, **irailaren 22an,** 20:00etan, D'Click taldeak **Latas** ikuskizuna eskainiko du. Izenak berak dion bezala, latak izango dira protagonistak, bizia hartuko dute emankizun interesgarri honetan. Basteron izango da eta 5 euro balioko ditu sarrerak.

Deialdia luzatu nahi diegu andoaindar guztiei magiak eskaintzen duen magia goza dezaten.